



Gradu Amaierako Lana
Kimikako Gradua

Esperimentazioa Kimika Fisikoan
Kimika graduko irakasgaiaren
terminologia-glosategia egitea
eta terminologia aztertzea

Egilea:

Sara Suarez Rodriguez

Zuzendariak:

Miren Igone Zabala Unzalu

Miren Itziar Urrecha Aguirresacona

LABURPENA

Lan honetan Kimika arloko euskarazko terminologia akademikoaren deskripzioan eta finkapenean ekarpen bat egin da UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Kimika graduan irakasten den *Esperimentazioa Kimika Fisikoan* irakasgaiaren erabiltzen den terminologia errealetik abiatuta. Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) programan garatutako metodologia erabiliz bildu da terminologia eta euskara-gaztelania-ingelesa glosategi eleaniztun bat prestatu da Terminologia Zerbitzurako Online Sistemari (TZOS) kontsultagai jartzeko. Bestalde, bildutako terminologia erkatu da, batetik, aldeztatik TZOSen jasota zegoen terminologiarekin eta, bestetik, Elhuyarren Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoan eta Euskalterm datu-base terminologikoan kodifikatuta dagoenarekin. Egindako azterketak agerian utzi du Euskalterm datu-baseak glosategiko termino gehien jasotzen dituen dela (% 64,6), TZOSen terminoen erdia ageri direla (% 50,4) eta Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikoan, aldiz, erdia baino gutxiago (% 45,7) ageri direla. Azkenik, egindako glosategian bildutako terminologiaren azterketa linguistikoa egin da, irakasgai honetan erabiltzen den terminologiaren profila irudikatzeko helburuz.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2.METODOLOGIA.....	7
3. EMAITZAK ETA EZTABAIDA	9
3.1. OSATUTAKO GLOSATEGIAREN EZAUGARRIAK	10
3.2. TZOS DATU-BASEAREKIKO ERKAKETA	11
3.3. GLOSATEGIKO TERMINOEN HIZTEGI ETA DATU-BASE TERMINOLOGIKOEKIKO ERKAKETA.....	13
4. GLOSATEGIAREN AZTERKETA LINGUISTIKOA.....	17
4.1. DESKRIBATUTAKO TERMINOLOGIAREN ALDAKORTASUNA	18
4.2. HIZTEGI-SORKUNTZARAKO BIDEEN EMANKORTASUNA.....	18
4.3. TERMINOEN AZTERKETA SEMANTIKOA.....	22
5. ONDORIOAK.....	24
6. BIBLIOGRAFIA	26

I.ERANSKINA: Glosategia

II.ERANSKINA: Glosategiko terminoen erkaketa hiztegi eta datu-base terminologikoekin

1. SARRERA

Lan honen helburu nagusia da kimika arloko euskarazko terminologia akademikoaren deskripzioan eta finkapenean ekarpen bat egitea, Zientzia eta Teknologia Fakultatean irakasten den irakasgai batean erabiltzen den terminologia erreala ikusgai eginez. Helburu horri begira, UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Kimika graduan irakasten den *Esperimentazioa Kimika Fisikoan* irakasgaiaren erabiltzen den terminologia erreala bildu, eta glosategi eleaniztun bat prestatu da Terminologia Zerbitzurako Online Sistema (TZOS) datu-base terminologikoanⁱ kontsultagai jartzeko¹.

Prestatutako glosategiko terminologia erkatu egin da aldeztatik TZOSen jasota zegoen terminologiarekin, terminologia akademikoa ikusgai egiteko eta partekatze diseinaturiko datu-base horri begira egindako ekarpena balioztatze. Bestalde, glosategiko terminologia erreala hori Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikoanⁱⁱ eta Euskaltermⁱⁱⁱ datu-base terminologikoan kodifikatuta dagoenarekin erkatu da, aztertutako irakasgaiaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan erabiltzen den terminologia erreala kontsulta-baliabide horietan zenbateraino dagoen jasota aztertzeko. Azkenik, egindako glosategian bildutako terminologiaren azterketa linguistikoa egin da, irakasgai honetan erabiltzen den terminologiaren profila irudikatzeko helburuz: denominazioen formaldakortasuna, terminologia horren sorkuntza-bideen emankortasuna eta terminoen azterketa semantikoa.

Batzuen iritziz, testu-genero ezberdinak hizkuntza-klaseetan ikasi behar dira eta ez zientzia klaseetan. Edonola ere, ideia zientifikoak ikasten diren heinean ideia horiek adierazten ere ikasten dute unibertsitateko ikasleek, ezagutza zientifikoa hitzaren

ⁱ Terminologia Zerbitzurako Online Sistemari (TZOS) buruzko informazioa helbide honetan aurki daiteke: <http://tzos.ehu.es/?setuilang=eu>

ⁱⁱ Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikoa helbide honetan kontsulta daiteke: <http://zthiztegia.elhuyar.org/>

ⁱⁱⁱ Euskalterm datu-base terminologikoa helbide honetan kontsulta daiteke: <http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/q91EusTermWar/kontsultaJSP/q91aAction.do>

bitartez adierazten baita. Esperimentu zientifiko bat aurrera eramaten denean, lortutako emaitzen adierazpena eta eztabaida espero da, emaitza horiek argitaratu arte ikerketa ez baita bukatutzat ematen. Honen arrazoi nagusia da zientzia etengabe garatzen doala eta aztergai denari gero eta azalpen zehatzagoak ematea posible dela. Era berean, esan daiteke zientzia ez dela ezerezetik sortzen, aldez aurretik lortutako emaitzetan oinarritzen delako. Oinarritzko jakintza hori, aurrerago deuseztatu arren, ezinbestekoa da zientziaren garapenean aurrera egiteko. Horregatik, zientzia ikasten denean, beharrezkoa da horri dagokion hizkera ezagutzea eta bere diskurtsoa zehaztasunez ulertzea². Argi dago euskarazko terminologiaren garapena eta erabilera gehienbat unibertsitateko ikasgeletan gertatzen dela, bertan esparru ezberdinetan aditu euskaldunak prestatzen baitira eta lan-munduan erabiliko duten terminologia ikasten baitute.

Ildo beretik, unibertsitateko diskurtso akademikoak erreferentziatzat har daitezke terminologia berrien garapen eta zirkulazioa aztertzeko. Unibertsitateak zubi-lana egiten du bigarren hezkuntzaren eta mundu profesionalaren artean: unibertsitateko ikasgeletan prestatzen dira alorrez alorreko etorkizuneko profesionalak eta adituak, eta unibertsitatean ikasten baitituzte aditu-profesional modura aritzeko beharrezkoak izango dituzten hizkuntza-baliabideak³.

Euskara normalizazio-bidean dagoen hizkuntza da, baina euskararen normalizaziorako legea onartu zenetik (1982), indar handia jarri da hezkuntzan. Azken hamarkadetan denetariko gaiak irakatsi dira eta unibertsitatean gero eta irakasgai gehiago eskaintzen dira euskaraz. UPV/EHUK gaur egun 22.324 kreditu eskaintzen ditu ikasketa-plan guztien artean. Horietatik 19.928,5 gaztelaniaz ematen dira (% 89,27); euskaraz, 18.061 (% 80,90) eta beste hizkuntza batzuetan, 1.601 (% 7,17). Unibertsitateak politika bat du markaturik irakasle elebidunak ugaritzeko, elebidun izanik euskararen erabilera bultzatu daitekeelako ikerlanetan eta zabalkunde zientifiko, tekniko, humanistiko eta artistikoan. Gaur egun, UPV/EHUn dauden irakasle elebidunen kopurua % 47 da. Bestalde, UPV/EHUn euskaraz matrikulatzen diren ikasleen igoera etengabea da. Batez beste urtero ehuneko bat

baino gehiagoko igoera izan da azken urteotan, eta, alde horretatik, UPV/EHU n matrikulatzen diren ikasleen erdiak baino gehiagok ikasketak euskaraz egitea espero da^{iv}.

Nolanahi ere, zenbait arazo detektatu dira erregistro espezializatuen eta terminologiaren finkapenean. Batetik, aditu-irakasleen artean terminologia partekatzeke sare arinik eza oztopo gertatzen da; izan ere, irakasleen eta ikasleen arteko komunikazio-sareak oso arinak dira, baina irakasleen artekoak oso geldoak eta eskasak dira. Bestetik, ikasgeletan sarritan komunikazioa testu espontaneoan eta ahozkoen bitartez gertatzen da eta, beraz, erabiltzen diren ahozko eta idatzizko testuak eta terminologia biltzeko zailtasun nabarmenak daude. Bestalde, terminologiaren gaineko interbentzioa gertatzen da etengabe, eta erabilera errealak kontuan hartu gabe egindako interbentzioek baliabide linguistiko horien garapena oztopatzeko arriskua izan lezakete^{4 5}.

Arazo horiek konpentsatzeko sortu zen Terminologia Sareak Ehunduz^v (aurrerantzean TSE) programa eta, hemen aurkezten den lana, hain zuzen, programa horretan kokatzen da, eta bertan garatutako metodologia eta tresnak erabili dira lana aurrera eramateko. TSE programa 2008an jarri zen abian UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren laguntzarekin eta euskararen normalizazioan UPV/EHU n lantzen diren espezialitate-alorretako terminologiaren garapenean eta finkapenean laguntzea du helburu⁶. Helburu hori aurrera eramateko, unibertsitateko irakasle-adituen erabilerak ikusgai egin behar dira erabiltzen dituzten baliabide linguistikoak partekatuz. Garaterm corpusean^{vi} kontsultagai jartzen dira UPV/EHUko titulazio eta irakasgai desberdinetan erabiltzen diren denetariko testuak (ikasle-gidak, apunteak, ariketak, praktika-protokoloak, azterketak...). Behin testuak lan-ingurunera igota, egokiro inbentariatuta eta

^{iv} Ikus UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidaria (2013-2017):

http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/p267-content/es/contenidos/informacion/indice_euskara_upv/eu_indice/adjuntos/II_plan_gidaria.pdf

^v Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) programari buruzko informazioa helbide honetan aurki daiteke:

http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/tse-programa/

^{vi} Garaterm corpusa ez da publikoa. TSE programako partaideek kontsulta dezakete pasa-hitza erabiliz <http://ixa2.si.ehu.es/garaterm-kontsulta/cgi-bin/kontsulta.py> helbidean.

linguistikoki prozesatuta, kontsultak egin daitezke Garaterm corpusaren gainean⁷. Bildutako dokumentuak hizkuntza-bilaketak eta azterketak egiteko ez ezik, terminologia erreala erazteko ere erabiltzen dira. Ondoren, lan-ingurune berean integratuta dagoen Erauzterm⁸ termino-erazte erdiautomatikoaren bitartez dokumentuetatik erauzitako euskarazko termino-hautagaiak balioztatu, eta beste hizkuntza batzuetako ordainak bilatuz, irakasgai irakasgai erabilitako terminoen glosategi eleaniztunak osatzea lortzen da. UPV/EHU unean honetan 3.182 irakasgai eskaintzen direla euskaraz kontuan hartuta, Garaterm corpusean kargatutako dokumentuei dagokienez, datu aipagarri hauek eman daitezke^{vii}:

- Irakasgai kopurua: 205 (~% 6,5)
- Dokumentu kopurua: 2.043
- Hitz kopurua: 8.496.649

Bestalde, osatzen diren glosategiak TZOSen kargatzen dira eta kontsultagai jartzen da testu horietan erabilitako terminologia erreala. TZOSek aukera ematen du terminoak proposatzeko, kontsultak egiteko eta, foroan bitartez, terminologiaz eztabaidatzeko, aukera horietako batzuk oraindik ustiatu ez badira ere. Hortaz, terminoen inguruan biltzen den informazioak aukera emango die adituei besteek erabiltzen duten terminologia kontsultatzeko eta finkapenerako proposamenak egiteko. Terminologia Zerbitzurako Online Sistemari (TZOS) kargatutako terminologiari dagokionez, datu aipagarri hauek eman daitezke:

- Kargatutako glosategi kopurua: 63 (~% 2)
- Ondo kargatutako kontzeptu kopurua: 16.446
- Berrikusteko talka kopurua^{viii}: 4.300

^{vii}Ikus Terminologia Sareak Ehunduz: "2012-2013 ikasturtea" txostena, 35or. : <https://docs.google.com/file/d/0B8eENjk9U1kvNFILQkRUT3hScFk/edit?pli=1>

^{viii}Talkak sortzen dira termino bat hizkuntzaren batean jadanik kargatuta dagoenean TZOSen. Halako talkak eskuz ebatzi behar dira.

Aipatu beharrekoa da 20 glosategi inguruan bideratuta daudela eta laster TZOSen kargatzeko prest egongo direla.

Alor bakoitzeko diskurtso espezializatuak sortzen dituztenak adituak dira eta, beraz, diskurtso horien oinarrian dauden kontzeptu-eskemak ezagutzen dituzte. Hori dela eta, hizkuntzalarien eta adituen arteko elkarlana ezinbestekoa da erregistro espezializatuen ikerketa egiteko orduan⁹. Euskararen kasuan, erregistro espezializatuen garapen naturala goi-mailako alor akademikoetan gertatzen da. Horren ondorioz, unibertsitateko geletan bereziki gertatzen den erregistro akademikoen garapena ikertzea beharrezkoa da, bertan terminologia erreala aurkituko dugulako. Beraz, oro har onarturik dago terminologia erreala deskribatzeko komunikazio espezializatuan erabiltzen diren testuak (idatzizkoak zein ahozkoak) biltzea eta aztertzea ezinbestekoa dela. Horixe da terminologiaren teoria berrien oinarri garrantzitsu bat.

Oro har, terminologia lanetan espezialitate-alorra hartzen da lan-unitatetzat, eta alor horretako kontzeptuak adierazteko erabiltzen diren denominazioak baino ez dira biltzen hiztegi terminologikoetan^{9 10}. Azterlan honetan ordea, lan-unitatea irakasgaia da, eta horrek zenbait ondorio ditu osatu dugun glosategian. Balioztatu ditugun terminoek aztergai den irakasgaiari erabiltzen diren testuetan dituzten agerraldietatik abiatu gara. Hartara, irakasgaiko testuak eta glosategia jakintza-alor batekin lotzen baditugu ere, testuetan bestelako jakintza-eremuetan koka genitzakeen terminoak ere agertzen zaizkigu. Adibidez, kasu honetan Kimika jakintza-alorrean kokatzen den irakasgai batetik erauzitako terminoen artean, ager daitezke TZOSen Fisikan, Zientzia Teknologikoetan edota Biziaren Zientzietan kokatu diren beste hiztegi batzuetan eta, beraz, glosategiaren egileak erabakitzen du termino horiek glosategian jasotzea komeni den ala ez. Aurreko guztia kontuan izanda, ondoriozta daitezke terminoak ez direla jakintza-alor jakin batekoak, jakintza-alor batean koka ditzakegun testuetan erabiltzen dira.

Gorago aipatu bezala, Garaterm corpusean bildutako dokumentuei eta TZOS datu-basean kargatutako glosategiei esker, posible da terminologia-kontsultak egitea eta

terminologia hori testuetan nola erabili den ikustea. Hiztegietan jasotzen den terminologia komunikazio naturalean erabiltzen dena izan daiteke, baina zenbaitetan erabilerari eragiteko proposamenak ere izan daitezke kodifikatutako terminoak. Hiztegietan jasotzen den terminologiari, terminologia kodifikatua esaten diogu. Bestalde, terminologiaren normalizaziorako erakunde baten bermea duen terminologiari, gure kasuan Eusko Jaurlaritzaren Terminologia Batzordearen bermea duenari, terminologia ofiziala esaten diogu eta Euskalterm datu-base terminologikoan kontsultagai dago. Horrenbestez, garrantzi handia du terminologia erreala ikusgai egitea, komunikazio espezializatu naturalean erabiltzen den terminologia erreala hiztegietan, datu-base terminologikoetan eta normalizazio-ekimenetan kontuan har dadin. Izan ere, gehienetan erabiltzaileek, itzultzaileek eta zuzentzaileek hiztegi eta datu-base terminologikoetan jasotako terminologia lehenesteko joera izango dute, erabileran aurki litekeenaren aldean⁵.

Bestetik, garrantzitsua da terminoen aldakortasuna aztertzea (4.1 atalean deskribatutako terminologiaren aldakortasuna aztertu da) eta bereiztea barne-aldakortasuna, lan-unitatearen barruan gertatzen dena, edo kanpo-aldakortasuna den, hau da, iturri desberdinetan aztertu dugun terminologia erreala terminologia kodifikatu edota ofizialarekin erkatzean forma-aldakortasuna ageri den. TSE programan lantzen ari den terminologia errealarari dagokionez, bereizi behar da egile batek egiten duen aldakortasuna (autoaldakortasuna), alegia, irakasgai baten barruan detektatutako aldakortasuna, eta egile ezberdinen artean gertatzen den aldakortasuna (heteroaldakortasuna). Heteroaldakortasuna glosategiak TZOSen kargatzen direnean detektatzen da talken bitartez. Aldagai ezberdin horien konbinazio ezberdinek, egoera ezberdinak sortuko dituzte, eta, ondorioz, aldakortasunaren azterketa guztiz ezberdina izango da kasuz kasu. Kontuan izan behar da, askotan aldakortasunak funtzio didaktikoa duela: igorleak bere idazkera alda dezake informazioaren jarraipena errazteko¹¹.

Jakintza-alor desberdinetan, terminologia desberdin garatzen da, eta euskara garapenean dagoen hizkuntza denez, interesgarria da aztertzea hiztegi-

sorkuntzarako bide desberdinek garapen horretan duten emankortasuna. Hori dela eta, jakin nahi izan dugu nola erabili diren hiztegi-sorkuntzarako bideak irakasgai honetan.

Bigarren atalean lana aurrera eramateko erabili den metodologia azalduko da. Hirugarren atalean, aztertutako irakasgaiaren glosategiaren ezaugarriak deskribatuko dira, eta, glosategian bildu den terminologia TZOSen alde aurretik jasota zegoen terminologiarekin erkatuko da lan honetan egin den ekarpena balioztatzeko. Ondoren, glosategia Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikoarekin eta Euskalterm datu-base terminologikoarekin erkatuko da, aztertutako irakasgaiaren erabiltzen den terminologia kontsulta-baliabide horietan zenbateraino dagoen kodifikatuta aztertzeko. Laugarren atalean, aldiz, glosategiaren azterketa linguistikoa egingo da: aldakortasuna, erabilitako hiztegi-sorkuntzarako bideak eta terminoen semantika. Azkenik, ondorioak bilduko dira bosgarren atalean.

2.METODOLOGIA

Azterlan honetan, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Zientzia eta Teknologia Fakultateko Kimika Graduan irakasten den *Esperimentazioa Kimika Fisikoan* irakasgaiaren erabiltzen den terminologia erreala ikusgai egin nahi da terminologia horren garapen eta finkapenari laguntzeko xedeaz. Horretarako, Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) programan garatutako tresnak eta metodologia erabili dira. *Esperimentazioa Kimika Fisikoan* irakasgaiaren erabiltzen diren dokumentuak Garaterm lan-ingurunera igo dira, eta testu horiek, formalki eta linguistikoki prozesatu ondoren, kontsultagai jarri dira Garaterm corpusean. Bestalde, Erauzterm termino-erauzlearen bidez testuetan erabilitako terminologia erreala erauzi da. Egun existitzen diren termino-erauzleak erdiautomatikoak dira, zenbait estrategia estatistiko eta linguistikoren bitartez termino-hautagaiak proposatzen baituzte, baina ezinbestekoa baita aditu batek (edo terminologo batek) hautagai horiek terminoak ote diren egiaztatzea. Egiaztatze prozesu horri termino-hautagaien balioztatzea deritzogu. Lan honen egilea Kimika gradua bukatzen ari den ikaslea denez, aditutzat har daiteke neurri handian. Nolanahi ere, terminoen balioztapena

egin ondoren, irakasgai horretako irakasleak egiaztatu du egindako lana, prozesuari erabateko bermea emateko. Horren ostean, beste hizkuntza batzuen (gaztelania eta ingelesa) ordainak landu dira irakasgaien erabilitako terminoen glosategi eleaniztuna osatzeko helburuaz eta Terminologia Zerbitzurako Online Sistemari (TZOS) kontsultagai jartzeari begira.

Aipatu bezala, testuetan erabilitako terminologia erreala erauzi eta gero, ezinbestekoa da termino-hautagaien balioztatzea egitea, Erauzterm termino-erazleak proposatzen dituen hautagai horiek terminoak ote diren egiaztatzeko. Balioztatze prozesu horretan, denominazioak identifikatzen ari gara, eta ez zehazki terminoak. Kontuan hartu behar da terminoek, gainerako elementu linguistikoek bezala, forma linguistikoa edo denominazioa eta alderdi semantikoa edo kontzeptua uztartzen dituztela. Hartara, termino bakar batek askotan denominazio-aldakiak eta kontzeptu-aldakiak azaltzen ditu erabilera errealean. Izan ere, gerta daiteke termino batek forma-aldaki (denominazio) bat baino gehiago azaltzea aztertutako testuetan. Adibidez, *bitrina / beira-kaxa; erreakzio-bero / erreakzioaren bero; errekuntza / konbustio; formazio-entalpia / H_f* . Hori dela eta, termino beraren forma-aldakiak identifikatu dira eta sinonimo modura kodifikatu dira glosategian. Sinonimoak identifikatzeko, glosategiko sarrerak hizkuntza desberdinen arabera ordenatzen joan gara, eta hizkuntza jakin batean denominazio bat errepikatuta zegoenean baina beste hizkuntza batean ordain desberdinak zituenean, egiaztatu dugu ordain desberdinak zituen hizkuntzan sinonimoen aurrean geunden ala ez.

Erauzterm termino-erazleak, integratuta dauzka aztertzen ari diren testuak kokatzen diren jakintza-alorrean (gure kasuan Kimika alorrean), TZOSek eta Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikoak dituzten sarrerak. Hartara, gure kasuan, Kimika alorrean TZOSen jadanik jasota dauden denominazioek bai eta Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikoan ageri diren denominazioek ere marka bat azaldu dute balioztatutako terminoen esportazioa egin denean. Automatikoki lortutako informazio horiek eskuzko bilaketak eginez osatu dira, markarik ez zuten denominazioek TZOSen beste alor batean (Fisika, Zientzia Teknologikoak,

Matematika, Biziaren Zientziak, Osasun Zientziak) jasota ote zeuden egiaztatzeko. Denominazio bat alor batean baino gehiagotan agertzen zenean, aztertzen ari ginen testuen kasuan egokiena izan litekeena hautatu da, Fisika, Zientzia Teknologikoak eta Matematika markei lehentasuna emanez. Ondoren, gure glosategian bildutako denominazioak Euskalterm datu-base terminologikoan eskuz bilatu dira: denominazioa ageri den ala ez jaso da eta bai zer jakintza-alorretan ageri den ere.

Informazio hori guztia bildu ondoren, gure glosategian bildutako terminologia hiztegi eta datu-base terminologikoetan bildutakoarekin erkatu da. Alde batetik, gure glosategian bildu dugun terminologia TZOSen aldez aurretik jasota zegoen terminologiarekin erkatu dugu, lan honetan egin den ekarpena balioztatzeko. Bestetik, osatu dugun glosategia Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikoarekin eta Euskalterm datu-base terminologikoarekin erkatu dugu, aztertutako irakasgaien erabiltzen den terminologia kontsulta-baliabide horietan zenbateraino dagoen kodifikatuta aztertzeko. Azkenik, glosategian bildutako terminologiaren azterketa linguistikoa egin da: aldakortasuna, erabilitako hiztegi-sorkuntzarako bideak eta terminoen semantika.

3. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Lan honen helburua da unibertsitatean erabiltzen den terminologiaren finkapenari laguntzea idatzizko komunikazio akademiko errearen deskripziotik abiatuta. Beraz, hasteko glosategia osatzen duten terminoen ezaugarriak aztertu ditugu; ondoren, TZOSen lehenago bildutako terminologiarekin erkatu dugu glosategia, lan honetan egin den ekarpena balioztatzeko eta, azken azpiatalean, osatu dugun glosategia Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikoarekin eta Euskalterm datu-base terminologikoarekin erkatu dugu, aztertutako irakasgaien erabiltzen den terminologia kontsulta-baliabide horietan zenbateraino dagoen kodifikatuta aztertzeko.


3.1. OSATUTAKO GLOSATEGIAREN EZAUGARRIAK

Aztertutako irakasgaien erabiltzen diren dokumentuak linguistikoki prozesatu ondoren, Erauzterm termino-erauzlea erabiliz, testuetan erabilitako terminologia erreala erauzi da. Termino-erauzleak 1830 termino-hautagai proposatu dituen arren, termino-erauzleak erdiautomatikoak direnez, ezinbestekoa izan da hautagai horiek aztertzea eta terminoak ote diren egiaztatzea. Balioztatze prozesu horretan, termino-hautagaiak eskuz landu ostean, 552 termino balioetsi dira. Hori egin eta gero, terminoak berraztertu dira errepikatuak eta okerrak kentzeko, sinonimoak ziren denominazioak sarrera bakarrean lotu dira eta, azkenean, 385 sarreraz osatutako glosategia osatu da. Azkenik, irakasgaien erabilitako terminoen glosategi eleaniztuna osatzeko helburuz, beste hizkuntza batzuen (gaztelania eta ingelesa) ordainak landu dira. Osatutako glosategiko 385 sarrera horietatik, 60 sarrerak sinonimo bat dute eta 4 sarrerak bi sinonimo dituzte. (Ikus osatutako glosategia I eranskinean).

Hiztegi eta datu-baseekiko erkaketa egin baino lehen, glosategiko terminoak osagaien kopuruaren arabera sailkatu dira (1. taula), terminoen konplexutasuna aztertzeko xedeaz eta, 1. irudian ikus daitekeenez, ia terminoen erdia osagai batekoak dira, ia beste erdia bi osagaikoak, eta termino konplexuagoen kopurua % 4 ingurukoa baino ez da.

1. taula- Glosategiko terminoen banaketa osagai kopuruaren arabera


Osagai bat	Bi osagai	Hiru osagai	Lau osagai	Guztira
185	184	13	3	385



1. irudia- Glosategiko terminoen banaketa osagai kopuruaren arabera


3.2. TZOS DATU-BASEAREKIKO ERKAKETA

Azpiatal honetan, glosategian bildu dugun terminologia erkatu dugu alde zurretik TZOSen jasota zegoen terminologiarekin. Erkaketa hori egitean, ikusi dugu glosategiak dituen 385 terminoetatik TZOSen erdia jasota dagoela (% 50,4) eta, 2.irudian ikus daitekeenez, gehienbat osagai bateko terminoak ageri direla. (Ikus II eranskina).



2. irudia- TZOSen jasota dauden glosategiko terminoak konplexutasunaren arabera

Bestalde, TZOSen jasota ez dauden terminoen artean, ikusi dugu, nahiz eta termino batzuk osorik ez agertu, batzuetan termino horien osagai nagusia jasota dagoela^{ix} (**absortzio-espektro / espektro*, **absortzio-espektrofotometro / espektrofotometro*, **ahokadura-ponpa / ponpa*, **formazio-entalpia / entalpia*, **baporazio-entropia / entropia*, **beirazko tresna / tresna*, **bolumen efektibo / *bolumen espezifikiko / *bolumen molar / bolumen*, **determinazio experimental / determinazio*, **diagrama ideal / diagrama*). Beste zenbait kasutan, forma-aldaki bat jasota dago (**berokapazitate / kapazitate termiko*, **bizitza erdi / erdibizitza*, **erreakzioen ordena / erreakzio-ordena*, **gas fase / fase gaseoso*, **laborategiko tresna / laborategiko tresneria*, **saiodi / saio-hodi*, **kte / ktea*). Azkenik, beste batzuetan, gure terminoa termino konplexuago batean txertatuta dagoela ikusi dugu (**azukre / azukre konplexu*, **datuen analisi / datuen analisi deskriptibo*) eta, beraz, nolabait terminoa jasota dagoela esan daiteke (3. irudia). Xehetasun horiei erreparatu eta gero, esan daiteke glosategiko terminoen edo horien osagaien % 40 ez dela TZOSen ageri. Gure datu-base terminologikoan ageri ez diren terminoen artean aipagarria da, adibidez, *propietate intentsibo* terminoa jasota ez egotea eta *propietate estentsibo*, aldiz, agertzea.



3. irudia- Gure glosategiko terminoen TZOSen agertzeko moduak

^{ix}Asteriskoa erabili dugu gure glosategian ageri diren baina TZOSen ageri ez diren formak markatzeko. TZOSen ageri den forma, aldiz, asterisko gabe eman dugu.

Aztertzen ari garena Kimika jakintza-eremuan koka daitekeen irakasgaia denez, eta irakasgaia komunikazio-unitate akademikoa denez, normaltzat har daiteke alor ezberdinetako terminoak aurkitzea, komunikazio-egoera espezializatuetan askotariko espezialitate-alorrekin lot daitezkeen terminoak erabiltzen baitira. Horrela, TZOSen ageri diren glosategiko 194 termino (% 46) Kimika alorrekoak dira, eta, gainontzeko terminoak, Fisika (*abiadura*), Zientzia Teknologikoak (*masa-frakzio*), Osasun Zientziak (*xiringa*), Biziaren zientziak (*kalorimetria*) edo Matematika (*kalkulu*) alorretan ageri dira (2. taula). Fisika eta Zientzia Teknologikoak alor-markak dituzten terminoek, 7. irudian ikusten den moduan, garrantzia dute irakasgai honetan. Aipatu beharrekoa da termino batzuk alor batean baino gehiagotan ageri direla TZOSen, eta guk alor horietako bat aukeratu dugula, beti ere Kimika Fisikotik hurbilena zen alorra hautatuz.

2. taula- TZOSen jasota dauden terminoak alor-markaren arabera

Kimika	Fisika	Zientzia Teknologikoak	Biziaren Zientziak	Osasun Zientziak	Matematika	Guztira
90	46	38	7	8	5	194


3.3. GLOSATEGIKO TERMINOEN HIZTEGI ETA DATU-BASE TERMINOLOGIKOEKIKO ERKAKETA

Aztertutako irakasgaiaren erabiltzen den terminologia erreala kontsulta-baliabideetan duen presentzia aztertu dugu eta, horretarako, Terminologia Zerbitzurako Online Sistema (TZOS), Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikoa eta Euskalterm datu-basea erabili ditugu (3.taula). Hiztegi eta datu-base horien arteko erkaketa interpretatzerakoan, kontuan izan behar da bakoitzak duen berezitasuna. Alde batetik, TZOS terminologia akademiko erreala ikusgai egiteko eta partekatzeke diseinaturiko datu-basea da; bestetik, Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikoak edozeinek kontsulta dezakeen terminologia kodifikatua biltzen du eta, Euskalterm datu-baseak ordea, Terminologia Batzordearen bermea duen terminologia ofiziala jaso eta kontsultagai jartzen du.

3.taula- Elhuyarren ZT hiztegia, TZOSen eta Euskaltermen jasota dauden glosategiko terminoak

TZOS	Elhuyar	Euskalterm
194	177	248

Ikus daitekeenez, aztertutako hiztegi eta datu-baseak elkarren artean konparatuz, Euskalterm datu-baseak beste biek baino termino gehiago jasotzen ditu (4.irudia) baina, glosategiko termino gehien jasotzen dituenaren izan arren, glosategiko terminoen % 64,6 baino ez ditu jasotzen. Gorago aipatu den bezala, glosategian bildu ditugun terminoen erdia TZOSen ageri dira (% 50,4) eta Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikoan, aldiz, erdia baino gutxiago (% 45,7). (ikus II eranskina).



4. irudia- Kontsulta-baliabideetan jasota dauden glosategiko terminoen kopurua ehunekotan


Aztertutako kontsulta-baliabideetan aurki daitezkeen glosategiko terminoen konplexutasunari dagokionez, aipatu behar da termino oso konplexuak ez direla ageri: 4. taulan ikus daitekeenez, osagai bateko eta bi osagaiko terminoak baino ez dira ageri. Oso adierazgarria da hiru eta lau osagai dituzten termino horiek aztertutako datu-baseetan aurkitu ez izana, batez ere, konplexutasun handiko termino horiek oinarrizko kontzeptuak deskribatzen dituztelako aztergai den

irakasgai honetan. Horren adibide batzuk dira *bolumen molar partzial, hasierako abiaduren metodoa eta manta bero-emaile*.

4. taula- TZOSen, Elhuyarren ZT hiztegian eta Euskalterm datu-basean jasota dauden glosategiko terminoak konplexutasunaren arabera

Osagai kopurua	TZOS	Elhuyar	Euskalterm
1	153	148	168
2	41	29	80
3	0	0	0
4	0	0	0
Guztira	194	177	248


Gainera, termino horietako batzuk adierazteko, laburtzapenak erabiltzen dira askotan, eta aztergai den irakasgaiko dokumentuetan sarritan ageri dira halako laburtzapenak. Hala ere, laburtzapen gutxi daude jasota aztertutako datu-baseetan. Horren adibide batzuk dira *erreakzio-beroa bolumen konstantean / q_v , erreakzio-beroa presio konstantean / q_p edo errekuntzako barne-energia / $U_{errekuntza}$* .



5. irudia- TZOSen, Elhuyarren ZT hiztegian eta Euskaltermen jasota dauden glosategiko terminoak konplexutasunaren arabera

Azterlan honetan lan-unitatea irakasgaia denez, normaltzat har daiteke alor ezberdinetako terminoak aurkitzea. Kontsulta-baliabidearen arabera alor-markak ezberdinak direla esan behar da; izan ere, Euskalterm datu-baseak jasotzen dituen

terminoak aztertuta, esan daiteke gehienbat agertzen diren markak Kimika (% 46), Fisika (% 25), Ingurumena (% 7) eta Matematika (% 4) direla (6.irudia). TZOSek jasotzen dituen terminoak aztertuta, aldiz, Euskaltermenak ez bezalakoak diren sei aurkitu ditugu (7.irudia): Kimika (% 46), Fisika (% 24), Zientzia Teknologikoak (% 20), Osasun Zientziak (% 4), Biziaren zientziak (% 4), eta Matematika (% 3). Espero zitekeen moduan, Kimika eta Fisika termino gehien dituzten alor-markak dira. Ikusi dugu zenbait termino kontsulta-baliabidearen arabera Kimika edo Fisika markadunak direla, esate baterako, TZOSen Kimika alor-markarekin aurki daitezke eta, Euskalterm datu-basean, aldiz, ez dira Kimika markadunak baina Fisika alor-markarekin aurki daitezke. Horren adibide dira *elkarrekintza, emaitza, espektro, fase likido, fase solido, masa, produktu, termodinamika* eta *uhin*.




6. irudia- Euskaltermen jasota dauden terminoak alor-markaren arabera

7. irudia- TZOSen jasota dauden terminoak alor-markaren arabera

Azkenik, TZOSen dauden glosategiko terminoak Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikoan eta Euskalterm datu-basean ageri ote diren aztertu dugu. Gorago esan bezala, TZOSek terminologia akademiko erreala biltzen du eta, Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikoak eta Euskalterm datu-baseak, ordea, terminologia kodifikatua eta terminologia ofiziala jasotzen dituzte hurrenez hurren. Hortaz, azpiatal honetan aztertutako irakasgaian erabiltzen den terminologia kontsulta-

baliabide horietan zenbateraino kodifikatuta dagoen aztertu dugu. Glosategian bildu ditugun 385 terminoetatik, TZOSen 194 termino daude jasota. Termino horiek beste kontsulta-baliabide bietan aztertuta, ikusi dugu Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikoak 39 termino ez dituela jasotzen eta, Euskalterm datu-basearen kasuan, 16 termino direla jasota ez daudenak (8. irudia). Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikoak jasotzen ez dituen termino asko Euskalterm datu-basean aurki daitezke, eta alderantziz. Nolanahi ere, oso adierazgarria da zenbait termino TZOSen bakarrik ageri direla, esate baterako, *balorazio bolumetrikiko*, *bapore*, *disoluzio diluitu*, *hoztaile*, *kalibrazio-kurba*, *konduktibitate*, *masa-frakzio*, *Pasteur pipeta*, *patroi primario* eta *ultrasoinu-bainu*.



8. irudia- TZOSen jasota dauden baina Elhuyarren ZT hiztegian eta Euskaltermen ageri ez diren terminoen kopuruak

4. GLOSATEGIAREN AZTERKETA LINGUISTIKOA

Aldakortasunaz hitz egiten dugunean, bereizi behar dugu egile batek sortutako testu baten barruko aldakortasuna den (autoaldakortasuna), edo sortutako aldakortasun hori, beste egile batzuek sortutako testuekiko aldakortasuna den (heteroaldakortasuna). Gure kasuan, autoaldakortasuna komunikazio-unitate baten barruan agertzen da, alegia, irakasgai bateko testuetan, eta heteroaldakortasuna ikus daiteke TZOSen kargatu diren beste glosategi batzuekiko. Kanpo-

aldakortasuntzat hartzen dugu, aldiz, gure glosategiko termino batek forma-aldaki bat agertzea eta Euskaltermen edo Elhuyarren ZT hiztegian beste forma bat azaltzea. Horretaz gain, termino horiei dagokienez hiztegi-sorkuntzarako bide desberdinek erakutsi duten emankortasuna aztertu dugu. Azkenik, terminoen azterketa semantikoa ere egin dugu, irakasgaiaren izaerarekin lotzeko asmoz.

4.1. DESKRIBATUTAKO TERMINOLOGIAREN ALDAKORTASUNA

Glosategiko terminoen forma TZOS, Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikoak, edota Euskaltermek jasotako termino baliokideen formarekin bat etorri ez denean, forma-aldakortasuna zertan datzan aztertu da. Ikusi ditugun kanpo-aldakortasunaren adibideak, ondoren azaltzen dira:

- Aldaki grafikoak: ortografikoak (**saiodi / saio-hodi*) eta ortotipografikoak (**solido egoera / solido-egoera, *gas fase / gas-fase*)
- Aldaki lexikoak: **bero-kapazitate / bero-ahalmen*
- Osagaien hurrenkera: **likido egoera / egoera likido*

Bestetik, glosategi barruan zenbait forma-aldaki ikusi ditugu eta autoaldakortasun horren adibide batzuk ondorengoak dira:

- Aldaki morfosintaktikoak: *erreakzio-bero / erreakzioaren bero*.
- Forma luzea / forma laburra aldakiak: *Erlenmeyer matraxe / Erlenmeyer, erreakzioaren ordena partzial / ordena partzial, hidrolisi erreakzio / hidrolisi*.
- Osagaien hurrenkera: *likido-nahaste / nahaste likido, likido fase / fase likido*

4.2. HIZTEGI-SORKUNTZARAKO BIDEEN EMANKORTASUNA


Glosategiko terminoen sorkuntza-bideak aztertu ditugu, landu dugun alorrean bide desberdinek duten emankortasunari buruzko datuak lortzeko. Orain arte aztertutako terminoak ez ezik, glosategian agertzen diren sinonimoak ere hartu dira kontuan eta denominazio horiek sortzeko jarraitu den bidearen arabera sailkatu dira. 5.taulan adierazi den moduan, glosategiko terminoen sorkuntza-bide ezberdinak mailegutza (*azido, probeta*), eratorpena (*irakite, mikrosaiodi*), hitz-elkarketa (*fusio-tenperatura, konduktibitate*), sintagmazioa (*kimika fisiko, pisu*

molekular), laburtzapenak (*cp, eV*) eta ondareko hitzak (*indar, lagin*) dira.

5. taula- Glosategiko terminoak sorkuntza-bidearen arabera sailkatuta

SORKUNTZA-BIDEA	TERMINO KOPURUA
Mailegutza	146
Erorpena	29
Hitz-elkarketa	77
Sintagmazioa	137
Laburtzapenak	40
Ondareko hitzak	21
GUZTIRA	450


Espero zitekeen moduan, osatu dugun glosategian dauden terminoak sortzeko gehien erabiltzen den bidea mailegutza da (9. irudia). Mailegutza, garapenean edo biziberritze-prozesuan dauden hizkuntza gutxituetan, eta euskara horrelakoan bizi da, ezinbesteko ondorioa da.



9. irudia- Termino-sorkuntzarako bideen emankortasuna


Erorpena hizkera zientifikoan termino berriak osatzeko askotan erabiltzen den sorkuntza-bidea izan arren, kasu honetan eratorriak dira gutxien ageri direnak ondareko hitzekin batera (29 eta 21 termino hurrenez hurren), baina kontuan hartu behar da mailegu asko eratorriak direla jatorrizko hizkuntzan eta beraz, datuek ez dute zalantzan jartzen eratorpenaren emankortasuna. Glosategiko terminoen % 6 eratorpenaren bidez sortutakoak dira, aurrizki edo atzizkiak erabili dira terminoa

osatzeko. Azterlan honetan eratorpenaren bitartez osatutako terminoak 10. irudiak erakusten duen moduan, bi multzotan banatu dira, euskal aurrizki edo atzizkiez osatutako terminoak (*disolbatzaile, erregai*) eta kultur aurrizki edo atzizkiez osatutakoak (*mikrosaiodi, ultrasoinu*).




10. irudia- Eratorpenaz osatutako terminoen banaketa

Glosategiko terminoen % 17 hitz elkartuak dira eta 11. irudian ikus daitekeen moduan, hiru talde bereiz daitezke: mendekotasunezkoak (*masa-frakzio*), aposizio arruntak (*gas fase*) eta tandem erako aposizioak (*likido/solido oreka*). Glosategi honetako hitz elkartuen % 82 mendekotasunezkoak dira, hau da, osagai bat nagusia da eta bestea mendekoa. Osagai nagusia eskuinekoa da, eta hitz elkartuari esanahia ematen diona da. Ezkerrekoak mugatu edo zehaztu egiten du. Esate baterako, *abiadura-ekuazio, absorbantzia-espektro* edo *aktibitate-koefiziente*. Gainontzeko % 18a aposizioak eta tandem-elkarteak dira. Hitz elkartuen ehuneko horretatik, % 9 aposizio arruntak dira: *likido egoera, Pasteur pipeta* edo *solido egoera*. Gainerako %9a tandem-elkarteak dira: *likido/solido oreka, likido-bapore fase-diagrama* edo *likido-gas diagrama*.



11. irudia- Hitz-elkarketaz osatutako terminoen banaketa

Terminologian ugariak dira sintagmazio bidez (12. irudia) sortutako terminoak eta glosategi honetako terminoen % 30 sorkuntza-bide hori erabiliz sortu dira. Hizkuntza bakoitzeko arauei jarraituz, hitzak sintaktikoki konbinatzen dira termino berriak sortzeko. Glosategi honetan sintagmazio bidez sortutako terminoen % 77 izena+adjetiboa motako konbinazioa erabiliz sortu dira, adibidez, *azido perkloriko*, *baldintza estandarrik* edo *pisu molekular*. Izenlaguna+izena motako konbinazioa kasuen % 17an erabili da, konbinazio mota horren adibide dira *bolumenaren aldaketa*, *inguruko tenperatura* edo *laborategiko espatula*. Gainontzeko konbinazioak oso ehuneko baxuan ageri dira, izena+adjetiboa+adjetiboa % 2 (*bolumen molar partzial*, *propietate molar partzial*, *sistema eutektiko sinple*), izena+hitz elkartu sintetikoa % 2 (*manta bero-emaille*, *substantzia negarreragile*), izena+aditzlaguna % 1 (*erreakzio-beroa bolumen konstantean*), izenlaguna+izena+adjetiboa (*erreakzioaren ordena partzial*).




12. irudia- Sintagmazioz osatutako terminoen banaketa

